


FICAB

Bidasoko Nazioarteko Zinemaldi Arkeologikoa
Festival Internacional de Cine Arqueológico del Bidasoa

HEZKUNTZA SAILA

SECCIÓN EDUCATIVA



BIDASOKO NAZIOARTEKO ZINEMALDI ARKEOLOGIKO IBILTARIA

HEZKUNTZA SAILA

**IKASTURTE OSOAN ZEHAR ZUEN ESKU IZANGO DUZUE FILM SORTA BAT
ZUEN IKASTETXEETAN IKUSI AHAL IZATEKO.**

FICABeko Hezkuntza Saila 2015ean jarri zen martxan. Film hauek Giza eboluzioan murgilduko gaituzte, ikerketaren azken nobedadeak sartzen dituen diskurtso historiko batean oinarrituta eta teknologia berrien laguntzaz.

Hauxe da azken urteotako FICAB Hezkuntzaren ibilbidea:

- 2018an, Hezkuntza Sailaren Saria aurkeztu zuen jaialdiak.
- 2019tik, Zinemaldiak film baten proiektu pedagogikoa eskaintzen die ikastetxeei.
- FICAB 2022ren edizioan ARK-MO izeneko ekimen berria jarri zen martxan, non ikastetxeek ikasleek egindako film labur bat (gehienez 5 minutu) aurkeztu dezakete.



NORENTZAT: ikastetxeei zuzendutako filmak

Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako eta Batxilergoko ikasleak.

FICABeko Hezkuntza Saileko film irabazleak eta unitate didaktikoak dituzten filmak ikastetxeei eskaintzea oso aukera interesgarria dela uste dugu. Arkeologia eta historia modu erraz eta hezitzailean hurbildu nahi du zinemaldiak.

Hautatutako dokumentalek alderdi didaktiko garrantzitsua dute: historia, arkeologia, generoa, balioak, ondarearen kontserbazioa... gaiak garatzen dituzte, hausnarketa eta eztabaida sustatuz.

HIZKUNTZA:

filmak jatorrizko hizkuntzan proiektatzen dira (frantsesa, ingelesa...), euskarazko edo gaztelaniazko azpiztituluekin.

DEAC Hezkuntza eta Kultur Ekintza Saila:

Gure aholkularitza eta lankidetzak izango duzue proiektu hau zuen ikastetxeetan txertatzeko.



Pelikula irabazlea



Unitate didaktikoa

ERRESERBAK EGITEKO:

Telefonoz: 943 63 93 53

Emaillez:

Itsaso Bikuña

ibikuna.oiasso@irun.org

Idoia Castro

icastro.oiasso@irun.org





FICAB 2017

GALDUTAKO ETORKIZUNAREN BILA

EN BUSCA DEL FUTURO PERDIDO

ZUZENDARITZA: ALFONSO PAR, LUÍS QUEVEDO.

PRODUKZIOA: TURKANA FILMS.

ESPAINIA. 2016, 60'

HIZKUNTZA: GAZTELERA

Tarifa: 15 €

Karlotak 18 urte ditu, eta Batxilergoa bukatu berri du, eta, beste hainbat gaztek bezala, ez daki zer egin etorkizunean. Osaba Luisek Eudald Carbonell arkeologo entzutetsua buru duen bidaia batera biltzera gonbidatu du: lau kontinentetan barrena, zibilizazioen jatorriaren mugariak bilatuko dituzte, eta, bidaldi zoragarri batean, ikusiko dute zergatik dagoen mundua egungo krisialdian murgilduta.



FICAB 2018

GOVANGO GAZTEAK

GOVAN YOUNG

ZUZENDARITZA: DAVID ARCHIVAL.

PRODUKZIOA: UNIVERSITY OF GLASGOW.

ESKOZIA 30'

HIZKUNTZA: INGELESA

Gaztelerazko azpitituloak

Tarifa: 15 €

Kamerak, zenbait eskola talderi jarraika ageri da, eskoziako erdialdeko inbasio Bikingoa eta ondorengo Erdi Aroko Strathclyde erreinuaren sorkuntzaren historia ikasten duten bitartean. Nolako erantzuna izango dute umeei beraiei hankazpian bikingo ziren erregeak ibili zirela jakitean?





FICAB 2019

INDUSKETAK IKASTETXEAN

FOULLES AU COLLEGE

ZUZENDARITZA: STÉPHANIE KOWALCZYK

PRODUKZIOA: PASSÉ SIMPLE

FRANTZIA 33'

IHIZKUNTZA: FRANTSESA

Euskarazko azpitituluak

Tarifa: 18 €

2017ko apirilaren 18tik, Narbonako Victor Hugo institutuko ikasleek Kapitolioaren zati baten hondakinak bilatzen dihardute beren irakasgaietako batean, antzinako hiriko monumentu handi bat, haren oinetan lurperatua. Bi astez praktikan jarri zituzten ikasturtearen hasieratik ikasitako irakasgaiak beren irakasleen eta INRAP, CNRS-ASM-eko (Mediterraneoko Sozietateen arkeologia) eta Narbo Via museoko profesionalen eskutik.



EMAKUMEA CARTAGO NOVAN

LA MUJER EN CARTHAGO NOVA

ZUZENDARITZA: ANTONIO ALPAÑEZ

PRODUKZIOA: FUNDACIÓN INTEGRA

ESPAINIA 2017. 50'

HIZKUNTZA: GAZTELERA.

Euskarazko azpitituluak

Tarifa: 30 €

¡¡Qart Hadasht erori da! Kartagotarrak garaituak izan dira! Erromak irabazi egin du, Luze bizi bedi Carthago Nova! Era guztietako neskatoak eta emakumeak bizi dira erromatar hirian.

Emakume liberto eta esklabu haien, izan zuten bizitza pribatuaren eta izan zituzten unerik preziatuenen, izuen eta itxaropenen, beren irriken eta konkisten historia da hau. Emakumearen historia da Carthago Novan.





FICAB 2020

HAMABI HAMARKADAKO AURKIKUNTZA

TWELVE DECADES OF DISCOVERY

ZUZENDARITZA: NIKOS DAYANDAS

PRODUKZIOA: AOIRI FILMS

GREZIA. 2019, 13'

HIZKUNTZA: INGELESA

Euskarazko azpitituluak

Tarifa: 12 €

Korinto funtsezkoa izan da Mediterraneoaren kolonizazioan eta industriaren (buztingintzaren eta ehungintzaren) garapenean, eta merkataritza nodoa izan zen erromatarren garaian, eta gune garrantzitsua kristau tradizio primitiboaren barruan. Herritarrek antzinatean hiria sentitzen zuten moduan jarrita arreta, ezaupide arkeologikoak jendarteratzeko eta herritar modernoek antzinako Korinto bizitzeko modu berriak garatu dituzte arkeologoen.



GIZON INDARTSUAK, EMAKUME AHULAK?

MÄCHTIGE MÄNNER, OHNMÄCHTIGE
FRAUEN?

ZUZENDARITZA: BIRGIT TANNER, CARSTEN
GUTSCHMIDT

PRODUKZIOA: GEBRUEDER BEETZ

FILMPRODUKTION

ALEMANIA. 2019, 52'

HIZKUNTZA: INGLÉS

Euskarazko azpitutuluekin

Tarifa: 30 €

Gizonak, ehiztari, eta emakumeak, biltzaile: horixe da gutako askok Historiaurrearen gainean dugun irudia. Horrela, aspaldidanik, gizona hartu da familiaren sostengutzat, eta, horren arabera, Historiaren hasieratik, hura egon da gizartearen gailurrean. Baina aurkikuntza batzuk ez datoz bat irudi horrekin eta, aitzitik, interpretazio oker asko azaleratu dituzte: Harri Aroan, emakumezko artista ugari izan ziren; Brontze Aroan, printzesa aberatsak; eta, bikingoen artean, aizkoraz borrokatzen ziren gudariak. Zientzia forentseen esparruan erabili ohi diren metodo zientifikoek ikuspegi berria izaten lagundu diete mundu osoko ikertzaileei.





FICAB 2021

NARBO MARTIUS, ERROMAREN ALABA

NARBO MARTIUS. LA FILLE DE ROME

ZUZENDARITZA: MARC AZÉMA

PPRODUKZIOA: PASSÉ SIMPLE

FRANTZIA. 2020, 52'

HIZKUNTZA: FRANTSESA

Euskarazko subtituluekin

Tarifa: 30 €

Narbo Martius, Frantziako Aude eskualdeko Narbona hiri zaharra, ahaztu samar utzia dute gure historiako liburuek. Eta arrazoi osoz! Haien aztarna gehienak ez daude ikusgai, Nîmes eta Arles hirietan ez bezala. Baina Galiako lehen hiriburua izan zen, K.a. 118. urtean Erromak sortua, eta "Erromaren alaba" esaten zaio. Lehenbizikoz, dokumental honek erromatar inperioko hiri garrantzitsuenetako bat erakutsiko digu, Antzinateko bigarren portua ere izan zena, Erromakoaren atzetik. Arkeologoek 25 urte daramatzate aurkikuntza paregabe eta berriak egiten.





FICAB 2022



KOSMOS ANTIKITERAKOA

ANTIKYTHERA COSMOS

ZUZENDARITZA: MARTIN FREETH

PRODUKZIOA: TONY FREETH, IMAGES FIRST LTD

ERRESUMA BATUA. 2021, 30'

HIZKUNTZA: IINGELESA Euskarazko
subtituluekin

Tarifa: ?

University College Londoneko (UCL) Anticiterako ikerketa-taldea ahalegintzen ari da Anticiterako Mekanismo enblematikoaren aurrealdearen eredu bat sortzen, antzinako Greziako kalkulagailu astronomikoaren zati batetik, 1901ean greziako belaki urpekariak aurkitu zuten hartatik. Detektibe zientifikoen historia honek, 3D puzzle diabolikoa argitzen du. Antzinako Greziako kosmosaren ulertze zoragarria agerian utziz, baita jenioaren sorkuntza liluragarria, Babiloniako astronomiako zikloak, Platonen Akademiako matematikak eta antzinako Greziako teoria astronomikoak konbinatzen dituen.



ARTE PALEOLITIKOA ARGITARA

ZUZENDARITZA: ALAITZ OCHOA DE ERIBE

PRODUKZIOA: ELHUYAR / TEKNOPOLOS

ESPAÑA. 2021, 13'

HIZKUNTZA: euskara

Tarifa: ?



Kantabriako Ikerketa Paleolitikoen Institutuko arkeologo talde batek Isuntzako koban aurkitutako labar artearen erreprodukzio bat egin du 3 dimentsiotan.

Helburua, arte paleolitikoa haren sortzaileek argizatzen zuten bezala ikustea. Horretarako, argiztapen sistema ezberdinekin esperimendu dute, hala nola gantzezko lanparak eta zuziak. Emaiza benetan harrigarria da.





FICAB 2023

ERROMATARREN ARRASTOAK OINEN AZPIAN

ZUZENDARITZA: NAGORE REMENTERIA E IÑAKI
LETURIA

PRODUKZIOA: ELHUYAR, EITB MEDIA
ESPAÑA. 2023, 30'

HIZKUNTZA: EUSKARA
Tarifa: ?

Iruten lur-azpian altxor handiak daude, izan ere, bertan zegoen Oiasso hiri erromatarra. Orain arte aurkitu dituzten arrastoen atzetik ibili gara Juan Jose Jiménez Oiasso museoko zuzendariarekin eta Zohartze Galan Arkeolaneke arkeologoarekin.



FICAB 2024

EGEOKO HISTORIA IGERIAN DIVING IN AEGEAN HISTORY

ZUZENDARITZA: STERIOS
APOSTOLOPOULOS

PRODUKZIOA: STERIOS APOSTOLOPOULOS
GRECIA. 2023, 12'

HIZKUNTZA: GREKERA Euskarazko
azpitoluekin
Tarifa: ?

Filmak Kasos delako uhartearen inguruko urpeko lehenengo prospekzio arkeologiko sistematikoa kontatzen du. Izan ere, uhartearen inguruan, itsasketa oso garrantzitsua izan da, Homeroren garaitik joan den mendera arte. Xanthi Argyris itsas arkeologoak arkeologo, zientzialari eta teknikari talde bat zuzentzen du, laugarren urtez, antzina hondoratutako ontzien bila.



FICABeko beste filmak



Hemeroteka bat ere badugu, FICABen edizio guztietan parte hartu duten film guztiekin. Filmak jaialdiaren webgunean kontsulta ditzakezue: **www.ficab.org**

